

U.E.U.:

ASPALDIKO ESKAKIZUNAREN

OIHARTZUNA

U.E.U.ren IDAZKARITZA

ELHUYAR aldizkariaren irakurleek badakite, inork jakitekotan, U.E.U.ren berri. Halaz ere, Udako Euskal Unibertsitatea hamargarren urtera iristen zaigularik, historia labur bat zirriborratze eskatu digate. Horretan saiaturagara. Fz dute, beraz, nota hauek zhiagorako pretentsiorik.

Orrera: donibane lohitzun:

1973 - 74

Baionan, 1970tik 1972ra ospatu ko Kultur Asteen segida eta gaper gisa sortu zen U.E.U., katanen "Universitat Catalana d'esu" eta okzitaniarren "Universit Occitana d'estiu"-ren antzezerbait izateko asmoz.

Urte hauetako euskal kulturaren textuingurua kontutan hartzea ezinbestekoa da U.E.U.-ren sorrera non kokatu behar den zehatzago definitzeko.

Badira, gure ustez, bizpahiru datu ahantzezinak. Ekastolen sorrera eta finkapena, adinekoen euskal alfabetakuntza eta euskara batuari buruz Euskaltzaindiak hartutako bidea oso ezanguratsuak iruditzen zaizkigu.

Hauek eta urte beretsuetako beste zenbait inizatibek -ELHUYAR taldea bera tartean delarik, noskinahiko argi adierazten digute pentsaera berri bat gorpuztuz zeto-

rrela eta eremu zabalagoak nahi zirela euskara eta euskal kultu rarentzat.

Purismoa eta hizkuntzarekiko kontzepzio eta erabilkuntza diglosikoa gainditu beharra zegoen; euskarak euskaldunon equnoroko hizkera eta zernahitarako baliagarria izan behar duela gauza normaltzat jotzen zen. Dinamika honek garbi utzi nahi zuen euskal kultura euskaraz burutu eta adierazpidetu behar dela eta urte luzeetako marginalismotik historiikotasun bidean aurreratzeko abagadunean jarri behar dela.

Honela, bada, U.E.U. dinamika honen lehenengoetariko ondoren bezala ulertu behar dela iruditzen zaigu, eta bide beretsutik aurrera egiteko zabaltzen zen beste fronte bat.

Datu estatistikoei gagozkie-larik, esan dezagun 1973. ean eta 1974. ean 80 eta 120 bat ikasle eta irakasle bildu zirela hurrenez hurren.

uztaritze: 1975 - 1976

Gorakada eta finkapen urteak dira, zalantzarik gabe, Uztaritze

ko biak. 200 partaide bildu ziren III.U.F.U.n eta 332 laugarrenean.

Ugaltze honek ekarri zuen, halaber, partaideen bestelakotzea, hots, euskal kulturaren alde, era bateko ala besteko lanetan nahiko kontsokratua zen jendea bildu zen Donibanen; Uztaritzen, ordea, uholde berria gehitu zitzaion lehen nukleo honi. Ikastola inguruetatik zetorren, hein handi batean, jende herri hau.

Ezerk markatzekotan, Uztaritzen egindako bi Agiriek markatzen dute biurteko hau. Zehatz-mehatz Agiriok aztertzea alde batera utziz, eta iqarotako urteek ematen duten perspektibatik irakurriz gero, bi berezitasun azpimarratuko qenituzke Agiriotan. Bateko, Euskal Unibertsitatearen premiatasuna eta horren alde burrukatzeko gogo tin-koa eta besteko, erreibindikapen horrentzat eskatzen zen onarpen eta consensus soziala.

Ez litzateke zuzena, Uztaritze aipatzean, erreibindikapen kutsu soilaz irakurlea gelditzea. Esan behar da, egiaren faboretan, alderdi akademikoa finkatu eta hobetu egin zela, ikastaldi eta mintegiez osatutako Ikastaroak eranez.

iruna: 1977tik aurrera.

Bost urtez egin da U.E.U. Iruñan. Bost urtetako gora behe-
ren laburpena hitz gutxitan egi-
tea ez da erraza. Urte hauetako
aurrerakada edo aportazioen pun-
turik nagusienak aipatuko ditu-
gu, soilik.

1.- Ikastaroen ugalketa eta espe- zializazioa.

Aldibereko Ikastaroen kopurua
hamabi hamasei Ikastaroren tar-
tean ibili ohi da urteotan. Bes-
talde, Ikastaro espezializatuak
dira denak. Uztaritzen gaien ara-
berako espezializazioa lortu zen,
baina ez ikasleena, ikasle guztiak
ikastaldi guztietara joan ahal
izateko moduan eratu ohi bait zen
programa, arratsaldeetako mintegie-
tan, soilik, talde espezializatuak
biltzen zirelarik.

Orain, aldiz, ikastaro bakoitza
interesatzen zaion bezeriarentzat
pentsatua dago, ikasle bakoitzak
bere aukera egin behar duelarik.

2.- Ikastaroetako saioren ugalketa.

Klaseak eta mintegiak dira, ge-

hienbat, ikastaroetan erabili ohi
diren saiok. Azken urteotan, aldiz
dibertsifikatu egin ohi dira saiok.
Klase eta mintegiez gain, labo-
rategi-praktikak, irteerak, landa-
-lana, aurkezpenak etab. tokia har-
tuz joan dira Ikastaro gehienetan.

Hildo honetatik doaz, halaber,
zenbait taldek burutu dituzten
disziplinarreko saiok.

3.- Argitalpenak

Pausu garrantzitsuenetakoa da
hau. Egia aitortu behar baldin ba-
da, inork ez zuen uste, U.E.U. hain
beste liburu argitaratzeko gai-
izango zenik.

Langintza honetan hasi ginen
lehen urtean, 1977an alegia, argita-
ratu ziren 14 Apunteliburu konta-
tu gabe, hauetariko zenbait nahiko
probisionalak bait ziren, hiruroge
tabat liburu argitaratu dira. Haue-
tatik, hamabost agortuak daude da-
goeneko eta bi birrargaratu egin
behar izan dira.

Kantitatea aipatzean, kalitate-
aren zalantza sortzen da maiz, baz-
terretan, euskaraz egindako lanei
buruz batez ere. Honetan ez dago
gure aldetik, zer ezkutaturik. Hain
beste libururen artean badira, du-

darik gabe, diferentziak. Bestalde Unibertsitaterako euskaraz egiten diren lehen textuliburuak izaki, zenbait huts barkagarriak direla pentsatzen dugu ez bait dago deusetik mirakuluetara iragaterik.

4.- Partaidetza

Partaideen kopurua aipatzera-koan, hona hemen azken urteotan U.E.U.n partehartzaileak: V.ean 503 ; VI.ean 501 ; VII.ean 348 ; VIII.ean 433 eta IX.ean 544. Hiru mila eta hirurogetabat dira beraz, denetara. U.E.U.n parte hartu dutenek orain arte burutu diren bederatzi ekitaldietan.

aurtengo saioei begirada

Begirada diogu, ez bait gatoz saio eta asmo guztien berri ematera. ELHUYAR aldizkaria, hain zuzen, Zientzia eta Teknika sailetan berezitua denez, alor hauetako Ikastaroen berri llaburra bertarik ez dugu emango.

Zientzi zehatzen alorrean, FISIKA eta KIMIKA ikastaroak emango dira. Esan behar da, azken urteotan hasitako bidea jarraituko dela, klaseak, mintegiak, laborategi-praktikak, aurkezpenak etab.

emanez.

KIMIKA Ikastaroaren zati bat BIOTEKNOLOGIARI eskainia dago eta BIOLOGIA Sailekoekin batera emango dute. Hona disziplinar-teko saioen froga interesgarria.

Penaz esan behar dugu MATEMATIKA Saileko Ikastarorik ez dela aurten emango. Halaz ere, taldeak lanean jarraitu du urtean zehar eta horren fruitu, bi textuliburu prestatu ditu.

TEKNIKA Saila aurten emango da lehenik U.E.U.n, Sail oso modura bederen, Hauexek dira Sail honetan emango diren gaiak: Automatismoaren Teoria, Teknologia Mekanikoa, Elektrizitatea eta Marrazkigintza.

Eskola Teknikoetako irakasleentzat pentsatua da, batik batik Sail hau, eremu horretako euskal irakasluntza zerbait bultzatzeko asmoz eratua, hain zuzen ere.

Uztailaren 19tik 31ra, Iruñako Larraona Ikastetxean da X.U.E.U-ren zita. Ez dago esan beharrik euskaltzale guztientzat ateak zabalik direla.